

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1147

AGINDUA, 2022ko martxoaren 1ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, Lekeitio udalerriko (Bizkaia) «Musikaia» Musika Eskola Publikoaren jarduna uzteko baimena emateko dena.

Lekeitio udalerriko «Musikaia» Musika Eskola Publikoaren jarduna uzteko baimena eskatuz, ikastetxe horren ordezkariak hasarazitako espedientea ikusi da.

Espediente horri Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarrean dauden arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Arau hauek ikusi dira: Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakaskuntza espezifikoak, arautu gabea, ematen duten ikastegiak (musika-eskolak) sortzea, jardunean jartzea eta baimenaren iraungitzea arautzen dituen urriaren 27ko 289/1992 Dekretua (1993ko urtarrilaren 4ko EHAA), eta arlo horretan aplikatu beharreko gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Jarraian zehazten den ikastetxe publikoari bere jarduna uzteko baimena ematen zaio:

Kode zenbakia: 015917 eta 48019778.

Izen generikoa: Musika Eskola Publikoa.

Izen espezifikoak: «Musikaia».

Helbidea: Eliz Atea, 10.

Udalerria: Lekeitio.

Lurralde Historikoa: Bizkaia.

2. artikulua.— Jarduna uzteko baimenak 2021-2022 ikasturtetik aurrera izango ditu ondorioak, eta une horretan baja eman beharko zaio Ikastetxeen Erregistroan daukan inskripzioari.

3. artikulua.— Ikastetxe hori berriro irekitzea eskatzen bada, nahitaezkoa izango da ikastetxeei baimenak emateari dagokionez indarrean dauden xedapenetan jasotako aginduak betetzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 1a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.